

Etnografia ibiliz.

Ibilbide generikoak donostian zehar

Miren Urquijo Arregui

Gizarte Antropologiaren irakaslea, Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU

Laburpena:

Gizartearen proiektzioa lurrean; hori da hiria. Era berean, espazioa praktikatutako lekua da, praktika sozialen emaitza. Hori horrela, artikulu honen helburua da azaltzea ibiltzeak, eragin politikoa eta posibilitate eraldatzaileak izateaz gain, politikak elika ditzakeela eta justizia sozialarekin loturiko prozesuetan lagungarria izan daitekeela. Horretarako, bi xede nagusi ditut; batetik, Donostiaren ekoizpenaren baitako emakumeen praktikak ibilbide etnohistoriko batean biltzea; eta bestetik, hiriaren eraldaketan izandako elkarrekintzen ondorioak zein eragin politikoak aztertzea. Generoaren elkarrekintzen zein performatibitatearen espazializazioan boterearen geografia irudikatzen dela ondorioztatzen dut.

Hitz gakoak: Hiria, generoa, ibilbidea, etnografia.

Jasotze data: 2019ko martxoaren 30an
Onartze data: 2019ko maiatzaren 21ean

Abstract:

The projection of society on the ground: that is the city. In the same way, space is a practiced place; it is the result of social practice. The objective of this article is to demonstrate that walking, as well as having a political effect and transformational potential, can feed policies and aid in processes linked to social justice. To this end, I have two main purposes: on the one hand, to bring together women's practices in the production of Donostia in an ethnohistorical walk; on the other, to examine the effects of interactive practices and political influences in the transformation of the city. I conclude that the interactive practices of gender and the spacialization of performativity reflect the geography of power.

Key words: City, gender, walk, ethnography

1. SARRERA

Hirietako eremu periurbanoen ikerketarekiko interesa izan nuen 2012. urteko ekainean. Urumea ibaian zehar egingo zuten aldirietako ibilaldi baten iragarkia irakurri nuen. Oinez egin genuen eta ibaiertzeko hamabi baserritan gelditu ginen. Arkitekto bat izan genuen gidari. Ibilaldi gehiago egin nituen: historikoak, antropologikoak, literarioak, performatiboak ... Ezagutzeko beste era bat zegoela ohartu nintzen, haragitua eta soziala. Artikulu honen helburua da islatzea praktika etnografikoaren baitan ibiltzeak duen eraginkortasuna. Donostiaren¹ ekoizpenean emakumeen praktikei erreparatzen die hain zuzen ere. Praktika horiek guztiak ibilbide etnohistoriko batean bildu eta hiriaren eraldaketan izandako elkarrekintzen ondorioak zein eragin politikoak aztertzea da xedea. Horretarako, lehenik eta behin ibiltze etnografikoaren inguruko eztabaida teorikoen berrikuspena aurkeztuko dut; jarraian, zenbait ibilbideren prestaketan erabili nuen metodologia esplizitatuko dut; eta azkenik, Donostiako Emakumeak eta Hiria Fororako egindako azken ibilbidea azalduko dut.²

2. MARKO TEORIKOA

Mimi Sheller-ek eta John Urry-k adierazi dute gizarte-zientzia garaikideek problematizatu egin behar dituztela teoria sedentarioak; azken horiek analisiaren oinarritzat jotzen dituzte egonkortasuna, lekua edo bizilekua. Hala, mugikortasunaren paradigma berri bat hartzeko proposamena egin dute, espazialitate mugikor eta erlazionala nabarmentze aldera (Sheller y Urry 2006; Sheller 2011, 2014). Gizarte-zientzietan eragin handia izan du beraien proposamenak (Sheller 2017). Besteak beste, ibiltzea protagonista duten teori-zazio espazialekin egin du bat norabide aldaketa mugikor horrek; era berean, ibiltzearekin loturiko alderdi zehatzekiko interes berritzailea eragin du, baita praktika horren gaineko hausnarketan sorrera eta garapen metodologikoak ere. Ordena honetan helduko diegu.

2.1. Norabide aldaketa espaziala teoria sozialean

Mugikortasunen paradigma berria batu egin zen norabide aldaketa espazialera, espazioaren lehen teoriarari sozial izan ziren Henry Lefebvre-ri eta Doreen Massey-ri jarraituta. Prozesu sozialen edukiontzi huts gisa eztabaidatzen dute espazioaren ideia biek; hala garatzen dute espazioari buruzko pentsamendu erlazionala eta gizarte-harremanen

1 Aurrerantzean hala izendatuko dut ofizialki Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa) dena.

2 Emakumeen parte-hartze herritarrerako espazioa da. 1998an sortu zen. Bere helburu nagusia da hiria genero ikuspegitik behatu eta hausnartzea.

inguruko pentsamendu espaziala, non espaziala eta soziala bereizezinak diren (Sheller 2017, 2).

Henry Lefebvrek *El derecho a la ciudad* (1978) testuan adierazten du hiria dela “gizartearen proiektzioa lurrean” (1978, 75); horrez gain, ondorengoa azaltzen du: “hiriak historia du; historia batek egina da, hau da, lana baldintza historiko batzuen baitan egiten duten pertsona eta talde zehatz batzuen” (1978, 65). Alegia, “eragile” jakinen “lan” gisa aurkezten du hiria Lefebvrek; izan ere, “ez dago lanik ekintzen, erabakien eta jokabideen arautu gabeko segidarik gabe” (1978, 67). Halaber, *bizigarritasun*-ean oinarritzen du hiriritasunaren estatusa; hots, bertan bizi direnek hiriarekiko eskubidea izatean (1978, 167). Lefebvreren ustez, bi dira eskubide hori sostengatzen duten ahalak: hiri-espazioaz jabetzeko eskubidea, biztanleriak egunerokoan erabat erabiltzeko duen eskubideari dagokionez, eta parte-hartzeko eskubidea, hau da, maila guztietan hiriko espazioaren ekoizpenarekin loturiko eskubideetan rol nagusia izateko eskubidea (Lefebvre 1978). Hala ere, Tony Fenster-ek (2005) kritika feminista txertatu du hiriarekiko eskubidearen nozio lefebvriar hontan, ez baitu behar adina arretarik jartzen boterearen harreman patriarkaletan. Hori horrela, egileak emakumeen eguneroko esperientziak behatzeaz gain, bizi diren hiriaren konfortari, bertako kide izateari eta horrekiko konpromisoari buruzko hausnarketak ere egiten ditu. Esperientzia eta gogoeta horien bitartez balioztatzen ditu hiriaren jabetzarako eta erabilerarako eskubideak, baita erabakiak hartzean parte-hartzeko eskubidea ere.

Bestalde, Lefebvrezentzat (1978, 87-90) denbora historikoan zehar itxuraldatu egin da hiriaren eta landaren arteko harremana; are gehiago, garai berean ekoizpen modu eta harreman desberdinak agertu dira. Ekoizteko (nekazaritza) eta ekiteko (poliki-poliki modelatzen joan den lurretik sortzen den paisaia) lekua da landa. Hala, herrialde industrializatuetan hiria inguratzen duen landa-eremuaren ustiapen ohiak lekua utzi die dominazio eta esplotazio modu sotilagoei. “Hedatzen dagoen hiriak landa erasotzen du, alatu eta deuseztatu egiten du” (Lefebvre 1978, 89).

Mugikortasunaren paradigma berriaren beste gakoetako batek tartean sartzen ditu Doreen Massey eta bere *Division of labour* (1984) testuak eragindako eztabaida, non kapitalaren mugimendu konplexuak eta espazio bakoitzean uzten dituzten sedimentazioak aztertzen dituen (Sheller 2017, 2). Massey-ren ustez, elkarren artean korapilatutako harremanen emaitza gisa eraiki behar dira espazioa eta denbora. Ezinbestekoa da espazio-denbora terminoetan (1994, 261) pentsatzea. Horrez gain, “praktiken, harremanen, loturen eta deskonexioen ondorio da espazioa. Bizitzan zehar espazioa eraikitzen dugu, maila guztietan eta barru-barrukotik globalera” (Albet eta Benach 2012, 198-99). Hori dela eta, ezin dugu pentsatu espazioa estatikoa eta laua denik, hura sortzen duten harreman sozialak dinamikoak baitira. Espazioa etengabeko prozesuan dago, egiteko dauden

lotura eta harremanak amaigabeak dira. “Aribidean dagoen ekoizpena da espazioa” (Albet eta Benach 2012, 198).

Hortaz, erantzukizunera eta politikara irekita dago beti espazioa; izan ere, izatez, dominazio- eta mendekotasun-, elkartasun- eta kooperazio- harreman sare konplexu batez beterik dago, boterearen geometria dinamikoa (Massey 1994, 265). Masseyk ondorengoa erantzuten du elkarrizketa batean: “Geometria erabili nuen interkonexioen ugaritasunean pentsatzeko tresna gisa, eta boterea erabili nuen azpimarratzeko interkonexio horiek botere-mapen barruan daudela” (in Romás-Velázquez y García Vargas 2008, 335), eta eransten du agian zehatzagoa izango litzatekeela boterearen topologiak izena ematea. Horregatik, feminismoarekiko konpromiso politikotik heltzen dio Masseyk analisi geografikoari. *Space, Place and Gender* (1994) lanean generoarekin eta eztabaida feministekin loturiko gaiak erlazionatzen ditu espazioaren eta lekuaren egitura sozialarekin. Espaziala sozialki osatuta dagoenez, eta baita alderantziz ere, genero-harremanen eraikuntzan ageri diren aldaketa geografikoak behatzen ditu, botere-harreman asimetrikoen eraikuntza-espazialean duten inplikazioa erakutsiz. Era berean, ikusgai jartzen du boterearen geometria horrek lanaren banatze espaziala eragiten duela: etxean konfinatzen ditu emakumeak, lan-merkatu industrialak eta ekoizpen-harreman kapitalistak desparekotasunean kokatzen ditu, eta generoaren arabera egitura espaziala sortzen du landa-komunitateetan (Massey 1994).

Espazioa praktika sozialen emaitzat jotzea bat dator Michael de Certeau-ren ikuspegiarekin; azken horrentzat “espazioa praktikaturako lekua da” (1996, 129) eta hiririk zehar ibiltzea egunerokoaren praktika bat da, jabetze eta erresistentzia prozesuak dakartzana. Boterearen instituzio arauemaileen praktika zapaltzaileek antolatutako espazioari gizarte osoak nola eusten dion eta hartaz nola jabetzen den ezagutzearen alde egiten du autore horrek; diziplinaren mekanismoak manipulatu eta horietara egokitu eta, aldi berean, horiek saihesteko kontsumitzaileek erabiltzen dituzten praktika herrikoiki, kontaezin, xume eta egunerokoak analizatzea; anti-diziplina sare bat osatzen duten prozedura eta erabilerak ikertzea; eta, azken finean, botere hegemonikoek proposatutako diskurtsoen eta erabileren, eta erresistentzia-praktiken esanahi eta erabilera berrien arteko dialektika ulertzea (de Certeau 1996).

1.2. Ibiltzea genero ikuspegitik

Interes handia erakarri du azken urteetan ibiltzearen arteak, jarraian ageri diren lanak dira horren isla: Gros 2015; Hazlitt eta Stevenson 2018; Schelle 2013; Le Breton 2017; Careri 2013; (Solnit 2015). Aitzitik, aspaldiko aurrekari multzo bat berresten dute ibiltarien inguruko genealogiek. Ezagunenak, Rousseau-ren eta Thoreau-ren ikuspegi naturalistak, Baudelaire-ren eta Walter Benjamin-en *flâneur*-aren noraezean egindako ibilaldiak, Guy

Debord-en deriba eta psikogeografia situazionistak, edo Michel de Certeuren erresistentzia praktikan ardatzuta deskribapenak barne hartu ohi ditu (Pink et al. 2010; Heddon y Turner 2012; O'Neill y Hubbard 2010). Horietan guztietan inplizitua da ideologia maskulinoa.

Deirdre Heddon-ek eta Cathy Turner-ek gaitzetsi egiten dute erreferente horiekin erlazionatuta dagoen ideologia, ibiltaria heroiko, indibidualista, epiko, urratzaile gisa balioztatzen baitu. Halaber, nabarmentzen dute Deborden psikogeografiaren paisaietan ez dagoela emakumezkoak. Are gehiago, urriak diren emakumezko situazionistak batek, Michèle Berstein-ek, sortutako *Toutes les Chevaux du Roi* (1960) fikzioak *dérive* situazionistaren bestelako pertzepzioa ematen du. Lan horretan Geneviève-k (autorean oinarrituta dagoenak) ez du hiria “gizonezko aske” legez esperimentatzen; emakumezko bakarti, triste eta etsigarriaren desiratutakoa ez den erakarpena komentatzen du, minez, bere gorputza ikuskizun bat dela ohartzen den emakumearena, alegia. Gainera, aditzera ematen du bere Paris gizonezko kideena baino mugatuagoa dela; hiriko toki beretara eramaten dute kaleek (2012, 228).

Orobat, Doreen Masseyk (1992) adierazten du *flâneur* figura maskulinoa dela ezinbestean. Gainontzekoak begiratzen ditu, baina gainontzekoek ez diote berari so egiten; noranzko bakarrek begirada horrek baztertu egiten du antigoaleko Pariseko espazio publikoan *flâneuse* bat egotearen aukera. Emakumezko zuzenak ezin ziren irten kaletik bakarrik paseatzera eta gizonezkoen indarkeriaren mehatxuak mugatu egiten zuen debeku horri aurre egiten zioten emakume “ez zuzenen” mugimendua (1992, 18-19).

Hainbat testuinguru historiko eta kulturaletan gehiago edo gutxiago hesitu edo gaitu daitezkeen ‘gaitasun’ bezala uler daiteke mugikortasuna (Sheller 2016, 259). Prostituzio konnotazioa du kaleko emakumezkoak (Delgado 2007; Solnit 2015). Paseoen inguruko kontaketeak beti alboratzen dute emakumearen esperientzia (Elkin 2017, 28).

Heddonek eta Turnerrek (2012, 225) nabarmentzen dute Rebecca Solnit-ek (2015) gizonezkoak emakumezkoak baino lau aldiz gehiago aipatzen dituela, genero gaiekiko kontzientzia handia duen arren. *Flâneuse. Una paseante en París, Nueva York, Tokio, Venecia y Londres* (2017) lanaren autore Lauren Elkinek dioen bezala, emakumezkoa bazara, iraultzailea izateko nahikoa da atetik irtetzea (2017, 29).

2.3. Etnografia mugikorrek

Praktika etnografikoaren baitan ondo finkatuta dago ibiltzea (Pink et al. 2010; O'Neill y Hubbard 2010; Heddon y Turner 2012). Tim Ingold antropologoarentzat ezinbestekoa da oinezko lokomozioa ingurunea hautemateko, teknologiaren historiarako, paisaiaren sorrerarako eta gizakiaren garapen anatomikorako (Ingold 2004). Halaber, Tim Ingoldek

eta Jo Lee Vergunst-ek (2008, 3) baieztatzen dute hein handi batean “oinez” egiten dela etnografia; bizikide diren giza-taldeen inguruan ez ezik, beraiekin ere ibiliz, baina nekez islatzen du etnografiak ibiltzea bera. Horri dagokionez, Marcel Mauss-en tradizioren eta gorputz-teknikei buruzko 1934ko ikerketara jotzen dute, izan ere, konparazio etnologikorako gai serioztat jota, ibiltzea agendan jarri zuen lehen lana izan zen (2008, 1). Hari beretik aipatzen dute Pierre Bordieu-k berrartu zuela Mausek formulatutako *habitus* kontzeptua, gorputzak ingurunearekin duen konpromisoa ulertzeko gako gisa (2008, 2). Gainera, autore horiek (2006) egituratu egin zuten ibiltzearen eta landa-lan antropologikoaren arteko oihartzun sail bat, horien esanahiak indartzea lortuz. Lehenik eta behin, landa-lanean metaforikoki zein benetan gaude lekuan bertan, ibiltzerakoan gertatzen den bezala, eta, hala, ibiltzearen ingurune multisensoriala ezin hobeto hautematen da, hots, pertsonaren eta lekuaren arteko esperientzia sentsorial, emozional eta zinetesikoa. Bigarrenik, ibiltzearen alderdi lokomotorren (ibilbideek sortutako lekuen ulermena ahalbidetzen du) eta besteen ibilbideen zein mugikortasunen ulermen antropologikoaren arteko erresonantzia erakusten dute. Azkenik, etnografoek beraien subjektuekin duten soziabilitatearen analogotzat jo daiteke ibilaldian zehar beste batzuen ko-presentzia fisikoa, beraien erritmoak, inflexioak eta estiloak partekatzea (Lee eta Ingold 2006, 68-69).

Erresonantzia handia duten hiru egitura horiek, -fenomenologikoa, erlazionala eta ikertzailea-, zabal esploratu dituzte. Hala, ibiltzeak, pertsonaren eta lekuaren arteko esperientzia sentsorial, emozional eta zinetesikoa gisa, ezagutzera ematen ditu ibiltzearen alderdi fenomenologikoak, pentsamendu, sentsazio eta esperientzien kaleidoskopioa. Eta pertsonen eta lekuen arteko konexio handiagoa sortzen dute. Konexio horren bitartez ingurumena hautematen da, baita bertan esku hartu ere (O’Neill y Hubbard 2010; Pink et al. 2010; Pink 2007; Heddon y Turner 2010; Myers 2011).

Ibiltzean sortzen den lekuari dagokionez, ezagutzeko modu interaktibo horrek aukera ematen digu hobeto ezagutzeko informatzaileak nola hautematen duen bere ingurunea eta eguneroko praktiken bitartez lekua nola eraikitzen duen; hainbat esanahi eta interpretazio geruza biltzen dituen prozesua ahalbidetzen du eta esperientziaren konplexutasunaren ulermena aberasten du; elkarrizketaren zenbait muga gainditzen laguntzen du; lekuaren ulermen zehatza errazten du; eta, azken finean, askotariko ezagutzeko moduei bide ematen die, besteak beste, esperientzialari, analitikoari eta interbenzionalari (Myers 2010, 2011; Arias 2017; Pink 2008, 2007; O’Neill y Hubbard 2010).

Azkenik, ibiltzean kopresentzia egoteak mesede egiten die enpatiari eta ezagutzaren koprodukzioari, elkargune kolaboratiboaren bitartez, oroimenak, oroitzapen biografikoak, sentimenduak ... gogora ekartzea ahalbidetzen duen eztabaida sustatuta. Bestalde, hizketaldiaz, elkarbizitzaz eta parte-hartzeaz baliatuta, lekuen inguruko ezagutza sortzen du (Myers 2010; O’Neill y Hubbard 2010; Arias 2017; Pink 2007). Horrez gain, Deirdre Heddon eta Cathy Turner ohartu dira emakume artista ibiltarien proposa-

menak gizarte-harremanetan oinarritzen direla kide maskulinoen kasuan baino gehiago (2012, 235). Orobat, bizikidetzarekin loturiko ibiliak agerian jartzen ditu espazioaren harreman politikoak, hiri barruko askotariko espazioak, eta beste espazio eta harreman espazial batzuei ematen die hasiera. Horrela, taldean ibiltzeak aukera eman dezake zenbait talderentzat muga espazialeatik kanpo dauden lekuetan sartzeko, eta testuinguru segurua hornitzen du, beste norbait lagun hartuta, emakumeek askatasunez paseatzen goza dezaten (Heddon y Turner 2010; Heddon y Turner 2012; Myers 2011).

Gainontzean, gaitasun fenomenologiko, erlazional eta ikertzaile horiek, ibiltzearekin zein landa-lan etnografikoarekin lotura dutenek, ahalbidetzen dute ibiltzea baliatzea esperientzia etnografikoa komunikatzeko (Pink et al. 2010, 4); hala, testuinguru akademiko eta publikoaren arteko ezagutza transferentzia aktibatzen du (Myers 2011, 193).

Esperientzia etnografikoaren anbiguotasuna eta konplexutasuna atzemateko espazio diskurtsibo eta estetikoak irekitzen du ibiltze-prozesuaren ikuspegi performatiboa, espresiboa eta sortzailea lantzeak. Horrez gain, baliabide performatiboz beteriko “espazio potentziala” sortzen du (O’Neill y Hubbard 2010). Plan dramaturgiko baten bitartez berreraikitzen da esperientzia etnografikoa; aipatu planak aurreikusitakoak dezake zein elementu, zein leku, momentu eta modutan erabiliko diren (Fischer-Lichte 2011: 104). Geldialdiak, atsedendialdiak eta parte-hartzaileen esku-hartzez osaturiko puntuazio markak ageri dira irudikatutako ibilbidean. Hori horrela, gertaera, ekintza eta interakzio konstelazio dinamikoz osaturik dago; iraganeko eta orainaldiko lekuak elkarrekin erlazionatzen dituzten istorioen eta hainbat oroimen mailaren estratifikazioz; eta etengabeko sormenezko birdefinizio prozesuan da goen segiden, irudikapenen eta testuinguruen errepertorioz (Turner 2010).

Ibilbide gidatuek sorturiko entzutezko espazioetan eraikitzen du lekua entzuleriak mugimenduaren bitartez; espazio horiek aberasten dituzte parte-hartzaileen esku-hartzeek, lekuaren inguruko beraien narratiba, behaketak eta oroimenak eratzeko aukera emanez. Hala ere, entzuleriari gonbit egiten zaio espazioa askotariko ikuspegitatik haute-mateko: entzumenezkoa, bisuala, ukimenezkoa ... (Myers 2010). Osaera horrek aukera ematen du irudizko espaziotatik igarotzeko edo testuak, argazkiak ... erabilia aldaketa espazialak mapatzeko (Heddon y Turner 2010; Heddon y Turner 2012). Azken finean, diskurtsoaren eta boterearen eremuen baitan mugitzen dira, baina, era berean, esploratzen dute nola sor daitekeen espazioa egunerokotasuneko ekintzen zein bizigarritasunaren bitartez. Leku jakin batean pilatutako istorioak banatzea dakar hiritik ibiltzeak. Istorio horiek ez dituzte soilik harreman espazialak adierazten, soziabilitate modu berriak eratzeko edo galduta zeudenak leheneratzeko aukera sortzen dute (Vergunst 2017).

Metodologia parte-hartzaileekin konbinatuta, ibiltzeak eragin politikoa eta posibilitate eraldatzaileak izateaz gain, politikak elika ditzake eta justizia sozialarekin loturiko

prozesuetan lagungarria izan daiteke (Myers 2010; Pink et al. 2010; Heddon y Turner 2010; Vergunst 2017). Genero-politiken eremuan ibiltzea baliagarria izan daiteke gizarte-harremanak mobilizatzeko, hierarkizatutako antolaketa kategoriak problematizatzeko eta zenbait dikotomia urratzeko: esaterako, mugikor/mugiezin, aktibo/pasibo, makro/mikro, basati/etxetiar, kultura/natura. Horietan guztietan erlazionatzen da lehen terminoa maskulinoa den horretara eta bigarrena femeninoa dena; izan ere, bereizketaren eta termino baten lehenespeneren bitartez sortzen dira botere-harremanak (Heddon y Turner 2012).

Azken finean, ikerketa-metodoak egokitzea beharrezkoa da teoria sozial, generiko eta mugikor batentzat. Bere ezaugarriak direla eta, nabarmena da etnografiak zeregin horretan duen lekua.

3. ESPERIENTZIA ETNOGRAFIKOAREN BERRERAIKUNTZA


Donostiako Morlansko akueduktu ohiaren inguruan ibilbide bat prestatzeko enkargua jaso nuen; Cristina Enea Fundazioak eskatu zidan Hidrologikoak 2017 programarako. Lana hiru fasetan burutzea erabaki nuen. Lehenengoa landa-lan etnografikoan oinarritutakoa; bigarrena ibilbidearen osaeran; eta hirugarrena parte-hartzaileen arteko interakzioan.

Akueduktuaren historiari eta inguruko espazioari buruzko ikerketa dokumentaletik abiatu zen landa-lana. Bibliografia espezializatua, erregistro grafikoak (bereziki mapak, grabatuak eta argazkiak), txosten artxiboak eta askotariko legedia barne hartu zituen. Horren ostean, elkarrizketak egin nizkien hainbat eremutan (arkitektura, antropologia eta historia) aditu direnei; informazio zuzena eman zidaten eta material dokumental gehiago eskuratu nuen. Halaber, ingurua ondo aztertzeko hainbat paseo egin nituen, bakarrik zein beste norbait lagun hartuta, informazioa aurkitu eta biltze aldera.

Bigarren fasean bildutako datuak antolatu eta bakandu nituen. Espazioetan barrena ibili nintzen, geldialdiak eta horien edukiak erabaki nituen, denborak neurtu nituen, *aipu* historikoak hautatu nuen, kontaketak idatzi, mapak egin, antzinako irudiak inprimatu nituen, eta, azken finean, ibiltzeko antzezpen-segida bat eraiki nuen.

Ibilbideko interakzioetan sortutako datuak bildu zituen hirugarren faseak.

4. URAREN BIDEAK



1. Munto - 2. Sta. Teresa - 3. Lazkano - 4. Txanpoene - 5. Txanpoene iturria / fuente
 6. Arbaizenea parkea - 7. Arbaizenea garbitegia / lavadero - 8. Morlans portua
 9. Morlans akueduktua - 10. Osasun iturria / Fuente de la Salud

“Uraren bideak” izeneko ibilbidea egin genuen 2017ko uztailaren 1ean (ikus mapa). *El agua como material* liburuan argitaratuta dago³, hortaz, haren inguruko laburpen motz bat besterik ez dut egingo. Morlansko akueduktoan barrena, Donostiako iturriak hornitzen zituzten iturburuak ibilbidea jarraitzen du metaforikoki. Hauek izan ziren geldialdiak: 1. Munto baserria: herri-plaza bilakatu zen sagardo-baserri baten hondarrak. 2. Santa Teresa Baserria. Desagertu egin zen. 3. Lazkano baserria. Desagertu egin zen. Akueduktorai-no jaisten ziren ubide guztiak ikus daitezke bertatik. 4. Txanpoene baserria. Desagertu egin daiteke edo uraren museo bat sortu dezakete bertan. 5. Txanpoene iturria. Muinoa zeharkatzen zuten uren azken arrastoa. 6. Arbaizenea basoa. Txanpuene iturburuak ba-besten du. 7. Arbaizeneako harratsa. Garbitzeko harrien arrastoak, aska bat eta erortzear

3 Esteka honetan kontsultatu eta deskargatu daiteke: <http://www.cristinaenea.eus/es/proyectos/hidrologikak>

dagoen txabola bat errekaostaren bidean. 8. Morlansko portua. Urumea ibaiaren mendate-sistemakoa zen. 9. Morlansko akueduktoa. 1609an eraikia, Donostia urez hornitu zuen 1863an harresiak bota eta geroko Kortazar zabalgunearen eraikuntzara arte. 10. Osasun iturria. Oso ezaguna, kutsadura medio, 1905ean itxi zuten arte.

2018ko uztailaren 7an ibilbide hori berriz egiteko asmoa genuen arren, urte osoan zehar lursailak izugarritzko eraldaketa izan zuen eta ezinezkoa izan zen. Bertan behera gelditu zen. Haatik, Morlansko Auzo-Elkarteak sustatutako hitzaldi batean aurkeztu nuen irailan eta, halaber, lehengo ibilbidearen zati bat egin ahal izan genuen elkarrekin. “Camino del fuego” izena eman diot, ibilbidea alderantzizko noranzkoan egin genuelako, hau da, kotarik baxuenetik altuenera egin genuelako. Hasierako ibilbidearen lau eta hamar geltokien artean ibili ginen. Morlansko portutik Txanpuene baserriraino igo eta gero beste bide batetik jaitsi ginen Osasun Iturrira eta Morlansko iturrira iritsi arte.

Emakumeak eta Hiria Fororako sortu genuen espazio berean hirugarren ibilbide bat.⁴ Plan dramaturgiko baten bitartez berreraiki dugu esperientzia etnografiko berri bat.

4.1. Ibiliaren praktika. Emakumeak eta hiria.

Munto baserriaren plazan elkartu gara, Aiete auzoan, Donostian. Gehienak emakumeak gara, gizonen bat ere badago. Aterkiak eta zira daramazkigu. Baita mendiko botak ere, behin eta berriz errepikatu baikenuen. Gure taldea lekuz kanpo dago bertan; izan ere, 70eko hamarkadatik aurrera eskuratu zuen itxuraren ondorioz, gaur egun Aieten ugariagoak dira takoidun zapatak. Biribil bat osatu eta ibilbidearen mapa banatu dugu. Ezinbestekoa da espazio-denbora terminoetan pentsatzea. Lekuaren aire-bista, 1956 inguruko ortofotoa, erakusten duen karteleraino joan gara. Bertan azaltzen diren baserriak lokalizatu ditugu egungo urbanizazioen gainean. Lursailarekin erlazionatutako kontraste eta gatatzak, haren erabilerak, gizartearen antolaketa eta bere lehentasunak aipatu ditugun lehen aldia izan da. Zorionez, plazako sagarrondo gazteak loretan daude. Gogorarazi dugu sagardo eta txakolin saila izan zela hura. Sagardoa egiteko beharrezkoak diren mugimendu eta garraioen inguruan hitz egin dut, baserriko gizon, emakume eta umeen parte-hartzea berdina dela azpimarratuta. Ekoizteko eta ekiteko lekua da landa. Baserriaren antzinako bodegan dagoen sagardoaren museo txikira jaitsi gara gero; ezin izan dugu bertako *tolarea* ikusi, Katxola baserrira mugitu baitzuten, egun auzoko kultur- etxea⁵ denera, hain zuzen ere. Parte-hartzaileetako batek gogoan du merendero ezaguna zen garaian Munton egon izana. Oso gazte zela alargun eta lau seme-alabekin gelditu zen Manuela Illarretak gerraos-

4 Ibilbidea aldatu egin daiteke, inguru horretan eraldaketa espazial handiak egon ohi dira eta.

5 Katxola ere mugitu zuten harriz harri beste leku batera eraikin berriak egin ahal izateko. Ikusiko dugun moduan, Donostian nahiko ohikoa den praktika da.

tean sagardotegi entzutetsu bilakatu zuen baserria, sukaldari bikaina zen eta; bakailao tortilla, tomate saltsaz osatutako platera, hegaluzea, arrain buruekin egindako gisatua patatekin, sardina zaharra ... eskaintzen zuen etxeko animaliez zein ortuaz arduratzen zen bitartean. 1993. urtean itxi zuten arte izan ziren Manuela eta bere seme-alabak auzoaren eraldaketaren lekuko. Arlo espaziala eta soziala bereizezinak dira. 2013an bota zuten XVI. mendeko baserri itzel hori. Baserriaren arrastoak agerian izango zituen plaza publikoa eraikitzea aldarrikatu zuen Aieteko auzo-elkarteak. Gatazkatsua izan zen parte-hartze saioa egin zuten, bizigarria eta elkargunea izango den espazio publikoa eratzeko ideia-lehiaketa barne hartu zuena. Azkenean, 2017az geroztik baserriaren harresiek, bezeroen sarbide zen eskalinatak eta bodegak osatzen dute plaza. Horrez gain, estalperik gabeko agertokia, eserlekuak, toka-jolasa, sagarrondo beteriko eremu berdea eta museo etnografikoa ere badaude espazio publiko horren baitan. Baserri bat plaza publiko bilakatu izana lagungarria izan da espazio publikoari, etxeko espazioari eta genero rolei buruz eztabaidatzeko.

Hein handi batean “oinez” egiten da etnografía. Galtzadara irten gara; 1847. urtera arte Baiona eta Madril lotzen zituen bakarra zen. 1615eko *El paso del Rey Felipe III por la Villa de San Sebastián* margolanaren kopia bat eman diogu taldeari eta garai hartako paisaia bestelakoa zela ikusi dugu. Naturarena prozesu soziala da. Bidaia horren arrazoia kontatu digu historialari batek; Bidasoa ibaiko Faisaien uhartean gertatu zen printzesen arteko trukea. Felipe III.ak bere alaba Ana Austriakoa entregatu zuen Luis XIII.a Frantziakoarekin ezkon zedin, eta haren ahizpa Elisabet Borboikoa hartu zuen bere seme Feliperen, gerora Felipe IV.a Espainiakoa izango zenaren, emaztetzat. Bidea egiten jarraitu eta bidezidorrean jauregitxoren batek zutik irauten duela ikusi dugu. Leku jakin batean pilatutako istorioak banatzea dakar hiritik ibiltzeak. Historialariak kontatu duena entzun dugu. 1813. urteko sutearen ostean, gorantz ari zen turismo aristokratan eta mugimendu higienistan (“olatu bainuak” aldarrikatzen zituzten terapiarako aukera gisa) oinarritu zen Donostiaren berpizkunde ekonomikoa. Horrek markatu zuen hiri turistiko donostiarren hasiera eta, ondorioz, uda bertan igarotzen zuten familiak jauregitxoak eraikitzen hasi ziren. 1865ean hots handiz hartu zuten hirian Elisabet II.a, izan ere, ur gazitan bainatzea gomendatu zioten azaleko gaixotasunerako. 1878an Bailengo Dukeek Aieteko baserri zaharra erosi zuten; hura eraitsi ostean eraiki zuten egungo jauregia. 1887an Maria Kristina erreginak uda garaia Donostian igarotzea erabaki zuen. Hori horrela, Aieteko jauregiak Elisabet II.ari zein Maria Kristinari eman zien ostatu. Alabaina, hiriko presentzia erreal eta aristokratikoa ez zen gatazketatik libre egon. 1866an udan Aieteko urak erabiltzeko eskaera egin zion Bailengo Duke eta Portugaleteko Markesak udalari, trukean dirua eskainita, baita hura erostea ere. Udalak ondorengo erantzun zuen: “...*que el de Ayete es el manantial principal que surte las fuentes del barrio de San Martín, que esas aguas son necesarias para el servicio de ese numeroso barrio, particularmente en la estación de verano, que la comisión ha visto con disgusto que se ha cortado la línea de Ayete y desviado estas aguas a los depósitos*

del Marqués de Portugaleta, dejando casi sin aguas la fuente de San Martín todas las noches, y en vista de lo expuesto, que esas aguas no pueden distraerse por ahora a otro punto que el de San Martín"⁶ Ibiliak agerian jarri ditu espazioaren harreman politikoak. Eta hala iritsi gara egun desagertuta dagoen Santa Teresako baserri-sagardotegira, lehenago komentatu izandakora; abitua hartzea erabaki ostean zenbatekoa zen ezkontzarekiko erresistentzia? Zenbatekoa inposizioa? Historialariak moderatu du eztabaida.

Santa Teresatik oinez joan gara izen bereko baserriaren gainean eraikita dagoen Lazkanoko urbanizaziora iritsi arte. 1841eko mapa bat banatu dugu, Morlansko akueduktora⁷ jaisten ziren iturburuak ikus daitezke bertan. Lekuaren toponimiak (Ayete-Ayet-Fayet, Puio-Puyu, Morlans, Miramon) agerian jartzen du iraganeko okupazio gaskoia, XII. mendekoa, alegia. 1525. urteko eskritura batean jasota dago Maria de Fayetek bi lursail saldu zizkiola Joanes de Guarnizori; horietako bat eta `Morlansko porturantz doan erreka`⁸ mugakide dira beheko aldetik. Aieteko etxeko andreak jarduten zuen jabe gisa. Diskurtsoaren eta boterearen eremuen baitan mugitu gara. Hirriaren historia biltzen duten testuetan ageri da gaskoia merkataritza gogotsuak izan zirela, botere administratiboa izan zutela, ardo eta sagardoaren ordenantzak gaskoiz idatzi zituztela, besteak beste; testu horietako maskulino generikoak, ordea, ezkutatu egiten du emakume gaskoiek izan zezaketen protagonismoa, paper-sortak agerian uzten duena. Baina esperientzia etnografikoa komunikatzeko oraingo Aiete bizitegi-auzora itzuli gara. Ezkerreko aldean elkarri atxikiak dauden 18 etxebizitza duplex dituen urbanizazioa eraikitzen ari dira, Arbaizenea parkearen lurretan; eskuineko aldean eta aurrealdean hiru pisuko zenbait etxebizitza-bloke, duela bi edo hiru hamarkada eraikiak. Arkitekto batek azaldu dizkigu eredu batean edo bestean bizitzeko moduak eta horiek genero-sisteman duten eragina. `Eragile` jakinen `lan` gisa aurkeztu du hiria. Urbanizazio zabalarekiko kritikan aitzindari izan zen Dolores Hayden arkitektoaren testu bat irakurri du; izan ere, urbanizazio zabalak baliabideak eta zergak xahutzen ditu eta hiri sexista baterantz garamatza.

Lazkanotik Txanpoene baserrira joan gara. Etxabek egin digu harrera, 1880 inguruan alokatu zuen pertsonaren birbilobak. Bere familiak lekuaren jabe den Albako Etxearekin izandako gorabeherak kontatu dizkigu. Ezagutzeko modu interaktibo horrek aukera eman digu hobeto ezagutzeko bertakoak nola hautematen duen beraien ingurunea. Sotomayorko Duke eta Irujo Etxeko Markesak erosi zuen 1883an Arbaizeneako onibarrarekin batera, bertan bere jauregia eraikitzeko asmoz⁹. Ondasunen oinordeko Albako

6 Donostiako Udalaren akta, 1866ko uztailaren 4koa. (Donostiako Udal Artxiboaren espedientea 20. zenbakia, Libro nº 1993).

7 Berdin.

8 (Muñoz Echabeguren 2003, 42)

9 (Berriochoa Azcárate 2016, 74).

Dukeak Donostiako Udalarekin negoziatu zuen 1997an Arbaizeneako hamar hektarearen lagapena parke publiko bilakatzeko. Trukean parkeko hiru hektareatan eraikigarritasun baimena eman zioten. Etxabe familia auzitan dabil harrezkero, bere eskubideak urratu dituztela alegatuta. Interkonekzio horiek botere-mapen barruan daude. Aurreko geltokian behatu dugu Arbaizena Berria urbanizazioa, egun eraikitzen ari direna, proiektuaren parte da. Txanpuene eta bere ortuak dauden lekuan beste etxebizitza batzuk eraikitzeke asmoa dute. Honela deskribatzen dituzte saltzerako orduan: “2, 3 eta 4 logaleko etxebizitzak, terraza handiekin edo jardín pribatuarekin, eremu komunak (igerilekua, solárium, gune berdeak eta gimnasioa) dituen urbanizazio itxian. (...) Etxebizitza guztiek dute orientazio bikoitza eta sekulako bistak”¹⁰. Txanpueneko gainaldean dauden ortuetara joan gara, bertatik Donostia, parkea eta mendiak ezin hobeto ikusten baitira. Horrek esperientziaren konplexutasunaren ulermena aberastu du. Abokatu batek eta antropologo legal batek hainbat datu eman dizkigute; esaterako, 1862an Donostiak 381 hiriko etxebizitza eta 762 baserri zituela, edo 1870. urtean Amarako baserrien %90 maiztertza-erregimenean zegoela¹¹ eta horien jabeak Donostian, Bilbon edo Madrilén bizi zirela. Baserrian sartu gara bertatik joan aurretik. Indalecio Ojanguren eta Ricardo Martín argazkilarien XX. mende hasierako argazkiak proiektatu dira. Botere-harreman asimetrikoen eraikuntza-espazialean duten inplikazioa erakutsi dute. Ojangurenen argazkiek baserriko bizitza irudikatzen dute; bigarrenaren argazkietan, berriz, Donostiako Belle Epoqueko udatiarrak ikus daitezke. Sotomayor-ko Dukeen eta Bailengo Duke Maria Dolores Collado y Echagüe-ren irudiak ere proiektatu dira, Prado Museoan ikusgai daudenak. Irudiekin batera Barandiaranek, Caro Barojak, Combak eta Laffittek baserriko euskal emakumeari buruz idatzitako testuak irakurri dituzte; jarraian, Teresa del Valle-k *Mujer vasca. Imagen y realidad* (1985) lanean idatzitako kritika irakurri dute. Irudietan ageri diren emakumeen praktiken inguruan eztabaidatu dugu. Eztabaida feministekin loturiko gaiak erlazionatu ditugu espazioaren eta lekuaren egitura sozialarekin.

Txanpueneko iturria izan da gure hurrengo helmuga. Ibiltzearen ingurune multisensoriala ezin hobeto hautematen da bertan. Bidea zaildu egin da, arriskua izan dugu, labaindu eta erortzeko, estropezu egiteko eta orkatila bihurritzeko. Neurri batean edo bestean, genero-harremanek ezeztatu, mugatu edo zedarritu egiten dute mugikortasuna. Baserritik iturriraino joatea erronka izan da hirian ibiltzera ohituta dauden partaideentzat, are gehiago zaharrentzat. Aitzitik, lokaztuta dagoen eta irregularra den lurra ez zen arrisku-tsua Txanpuenen eta inguruko baserrietan bizi izan ziren emakumeentzat, egunero egiten baitzuten ibilbide hori. Gizartearen produktu dira mugikortasunaren geografiak. Partehartzaileei gonbit egin zaie espazioa askotariko ikuspegitik hautemateko: entzumenezkoa,

10 Neinorhomes.com

11 (Berriochoa Azcárate 2016, 504-504)

bisuala, ukimenezkoa ... Etorkizuneko Arbaizenean parkea dela eta mugitu egin dezakete Txanpueneko iturria. 2017ko *Donostiako Hirigintzako eta eraikitako ondarea babesteko Plan Berezia*-k hala dio: "... baimena ematen dugu iturriaren azpil harrizko harresia desmuntatu eta inguru hurbilera lekualdatzeko". Lehenago, 2008ko Planean, iturriaren babesak zekarren harengandik 30 metroko eremuan ez eraikitzeko edo ingurua ez aldatzeko murrizketa; 2014koan deskatalogatu egin zuten iturria. Auzoteriaren erresistentziari esker lortu zuten Donostia/San Sebastian 2016 Fundazioaren diru-laguntza, Europako Kultur Hiriburuaren programaren baitan. Hari esker atera zuten lurpetik iturria auzolanean eta urtero egiten dute erromeria inguruan. Ikuspegi ekologikotik zentzugabekeria da lekualdatzea. Donostiako edateko uraren zerbitzu orokorretatik kanalizatuko dute iturria? Egungoa lehortuko dute? Lakualdatzearen arrazoia parkean zehar paseatuko dutenen irisgarritasuna da edo Txanpuenen proiektatu dituzten etxebizitzak dira? Espazio horretako irisgarritasuna sendo itxuraldatu dute berriki, iturburuaren zirrikituaren gainean bota zuten sei tona lur eta harrirekin. Ibilbideak sortutako lekuen ulermena ahalbidetu du. Eragindako desnibelak Arbaizeneako basorako mugikortasuna blokeatzen du. Haatik, Lazkanoko Arbaizenea Berrira doan bidea sortu du goiko kotan; hiriko Mugikortasun Planak jasotzen du bizikletentzat bidea izango dela. Lazkanora itzultzeko baliatu dugu, bertatik Morlans auzora jaisteko. Igogailu berria erabili dugu; joan aurretik 1841eko ubideen mapan behatu dugun Santa Teresakoak bat egiten duela igogailuaren ibilbidearekin. Arazo ugari eragin dituzte igogailuaren eraikuntza-lanek mendi-magalean. Beste behin ere arkitekturak emakumeen bizimoduari buruzko informazioa emango digu, oraingoan Morlans moduko urbanizazio trinko batean.

Morlansen 1634ko¹² eta 1740ko¹³ grabatuak erakutsi ditugu, baita XIX eta XX. mendeetako argazki multzo bat ere; azken horietan argi ikus daiteke Urumea ibaiaren bideratzearen eraginez izandako aldaketa geografikoak, paduraren lehorketa eta aldamenean dagoen Amara auzoaren eraikuntza. Osaera horrek aukera eman digu irudizko espaziotik igarotzeko eta aldaketa espazialak mapeatzeko. Sinesteko zaila da bloke garaiz osaturiko Morlans auzoa mende askotan zehar portua izan zela. Izostegi baserriraino oinez joan eta bertako zaharrekin elkartu gara, alboan lotzen zuten txaluparekin eta aroztogia zenean ibaitik iristen ziren enborrekin gogoratzen direnekin. Hiriak historia du, historia batek egina da. Urumeako portu-sistemaren baitan zegoen Morlansko portua; asko erabiltzen zuten Nafarroa eta Gipuzkoa artean merkantzia garraiatzeko, nagusiki burdina, egurra, sagardoa eta ardoa. Iñaki García Vicuña-k dioen moduan: "*gaur egun kostatu egiten zaigu irudikatzea ala edo gabarra izenez ezagutzen zituzten ontzi txikiak Urumea ibaitik gora*

12 Pedro Texeira-ren *Descripción de España y de las costas y puertos de sus reynos* atlasa. Austriako Liburutegi Nazionala, Viena.

13 (Muñoz Echabeguren 2003, 45) Gizpukoako dokumentu kartografiko-historikoak.

eta behera mareen erritmora”, jarraian eransten du “*Urumea ez balitz nabigarria izango Hernaniraino, ziur aski Donostia ez litzateke helduko izan zen hiri komertziala izatera*”¹⁴. 1615ean merkataritza-gune indartsua zen Donostia, kantauriko artile esportazio portu nagusia baitzen¹⁵, baina merkataritza eremuan zuen garrantzia XVI.mendekoa zen; Europa eta Amerikarekin merkataritzak XVIII. mendera arte¹⁶ iraun zuen. Merkataritza-hiri indartsu hartako emakumeen presentzia aldarrikatu dugu, portuan batelari, gabarrari, zamaketari edota zirgari¹⁷ gisa, edo Ternuarekin, itsasontziekin edo konpainia komertzialekin¹⁸ inbertitzaile gisa egiten zuten lana nabarmenduta. Leire plazaraino joan gara oinez; gune kritikoa baita segurtasun arazoak direla eta. Bertan jakinarazi dizkigu berdintasun teknikariak zaurgarritasun- arriskuan dauden kolektiboen mugikortasun aske eta segurua bermatze aldera egin dituzten esku-hartze municipalak. Baita hiri parekide eta segurua eraikitzeko bidean hiritargoarekin egindako egiaztapen-prozesua ere. Ezagutzeko modu esperientzialari, analitikoari eta interbentzialari bidea eman diegu.

Morlans auzotik Arbaizeneako harraskara igo gara. 1804 inguruko arrats baten hondarrez gain, aska bat eta garbitzeko zenbait harri ikus daitezke iturburuaren bidean. Baita ziurrenik akueduktuan¹⁹ isuriko ziren kanalizazio ugari ere. Auzoko bizilagun batek azaldu dizkigu harraskan borondatez egin dituen berriztapen-lanak. Ibiltzean kopresentzia egoteak mesede egiten die enpatiari eta ezagutzaren koprodukzioari. Ereku horretako (Arbaizenea, Beliz, Agustindegi, Txanpoene, Arruene, Lazkano, Gorriti...) baserrietako emakumeak maiz joaten omen ziren inguru hartara; izan ere, harresi-barruko hiriak beti izan zituen arazoak uraren hornidurarekin, eta emakumeak ziren baserrietako arropak garbitu eta lehortzeaz arduratzen zirenak. Hiriko beste gune batzuetan ere bazeuden harraskak: Txofre, Igeldo edo Loiola; bertan garbitzen zuten emakumeek Donostian²⁰ bizi zen jendearen arropa. Joaquín Ordoñezek dio 1761ean “*como los caseríos están en tierras quebradas hay en los más fuentes y lavaderos, allí tienen leña para las coladas y todas las mujeres de los caseríos se emplean en lavar la ropa toda las semana y así los lunes cuando vienen cargadas con sus verduras y otras cosas, recogen las ropas de las casas y teniéndola lavada y doblada la traen a sus dueñas, descalzas como se ha dicho, siempre sobre la cabeza, de forma que son*

14 (García de Vicuña Olaizola 2014, 1)

15 (Unsain 2016, 70)

16 (Unsain 2008)

17 (Macías 2016)

18 (Azpiazu Elorza 2016)

19 Goiko aldean teilazko kanalizazioa duen harresia dago Morlans auzoruntz behera eginda. Lan horretakoa izan zitekeen, Joaquín Ramón Echevestek 1840ko ekainaren 13an sinatutako *Condiciones de la obra* lanean ageri den deskribapenaren antza du eta. (Donostiako Udal Artxiboko Espedientea, 20. Zenbakia, 1993. liburua).

20 (Manrique Sáez eta Alberdi Erice 2000, 306-8)

*capaces de cargar con diez arrobas y especialmente los sábados entran cargadas formidablemente, siempre muy agudas, las manos desocupadas y colgando*²¹ Emakumeen eguneroko esperientziak; Gorputzak ingurunearekin duen konpromisoa ulertzeko gakoa. Agustindegiko Maria Asun Iriartek (1914-1990) Cervera hotelarentzat garbitzen zituen arropak, ura belaunetaraino zuela, Morlans auzoko sakanera erortzen zen ura jasotzen zuen hiru harraskako konketean. Belizeko Julianak (1887) eta Isidrak (1889) hoteletako arropa garbitzen zuten harraskan²² gaztetatik. Carmen Artieda Razkinek Facebook bitartez gogorarazten du Amara gainean dagoen Peseta mendiaren izenaren jatorria: garbitzaileek peseta baten truke alokatzen zuten izarak belarretan esekitzeko. Emakumeei elkarrekin soziabilizatzeko aukera bikaina eskaintzen zieten harraskek; egiten zuten lana oso gogorra bazen ere, topo egiten zuten bertan eta egunerokoarekin loturiko gaiez hitz egiten zuten giro lasaian. Gizonentzat, berriz, txutxu-mutxu, zurrumurru eta eztabaidetarako espazioak ziren. Horrez gain, sexuen arteko desberdintasunak zein beraiekiko²³ itxaropenak erreproduzitzen eta indartzen zituzten espazioak ziren. 2019ko aurrekontua osatzeko prozesu parte-hartzailearen baitan proposatu zuen Emakumeak eta Hiria Foroak Arbaizeneako harraska berreraikitzea eta garrantzitsutzat jotzea. Baheketa teknikoak iritzi zuen, bere egiturazko izaera zela eta, ezin zitekeela prozesu horren barruan aintzat hartu bere, baina Arbaizeneako parkeko proiektuan hartuko zutela kontuan. Parke hori izan da, hain zuzen ere, ibilbideko hurrengo etapa eta azkena.

Morlansko auzo-elkarteko emakumeak etorri dira gurekin eta aurrekontu parte-hartzailetarako egin zuten proposamena irakurri digute, hautatua izan baitzen. “Arbaizenea, hiriarentzat eta Morlans auzoarentzat basoa” du izenburua. Oxigeno-hauspo gisa duen eginkizunarekin bat azpimarratzen dute etengabe murrizten ari dela eta babestu beharreko ondare material zein inmateriala dela. Hiri-espazioaz jabetzeko eskubidea; parte-hartzeko eskubidea. Basoaren murrizketa geroz eta handiago da. Azkena 2019ko otsailaren 26an, Arbaizenea Berriko etxebizitzentzat kanalizazioak eraikitzeko. Aribidean dagoen ekoizpena da espazioa. Elkarteko kideetako bat ingurumen-teknikaria da; argudioak eman ditu, *hiri berdea* deritzen joera ardatz hartuta, Donostiari buruz eztabaidatzeko. Gero basoan barrena sartu gara, laborantza-paisaia ondareari dagozkion zuhaitzak sailkatzen saiatzeko; historian zehar sozialki sortu dituzten produktuen araberakoa izango da sailkapena. Horrez gain, olgetako paisaiarenak ere behatu ditugu, jauregikoa den palmondo apaingarriren bat. Ezinbestekoa da oinezko lokomozioa ingurunea hautemateko eta paisaiaren sorrerarako. Kultur-paisaiaz hitz egin dugu. Komenigarria litzateke gogoan izatea 1841ean Morlansko akueduktoa konpondu zutenean Joaquín Ramón de Echeveste

21 (Berriochoa Azcárate 2016, 48)

22 Idem

23 (Gallego Muñoz 2011)

arkitektoak *ur kopuruaren inguruan egindako behaketak*: esan zuen iturburuetatik irtetzen zen ur kopurua nabarmen murriztu zela eta “*es de suponer que cuando los antiguos se resolvieron a construir esa serie de enormes y costosos muros, debieron contar con limpias y abundantes aguas en su origen; sería una torpeza inconcebible que solo para las aguas que hoy producen los primeros manantiales hubiesen invertido sumas tan considerables*”²⁴. Miramonera arteko lursaila hartzen zuten baso trinko eta hostotsua desagertzeari egosten zion ur kopuruaren murrizketa. Jarraian azaldu zuen iturburuaren kontserbazioan zuhaitziek duten eragina. Bere argudioak indartze aldera, nabarmendu zuen entzun zituela Oiartzungo eta Irungo nekazari edadetuak esaten “*en su juventud conocieron agua permanente capaz de hacer obrar las ruedas de una Ferrería, ahora escasamente alcanzaría para un molino ordinario*”²⁵. Basoan barrena gindoazela lekuaz jabetu gara. Egun olgetarako den espazioa leku publiko irisgarri, berdinzale eta jasangarri bilakatzeko proposamenak bildu, mapak marraztu eta ibilbidea amaitutakoan auzo-elkartearen²⁶ lokalean jarri ditugu ikusgai. Ibiltzeak eragin politikoa eta posibilitate eraldatzaileak izateaz gain, politikak elika ditzake eta justizia sozialarekin loturiko prozesuetan lagungarria izan daiteke.

5. ONDORIOAK

Esperientzia etnografikoaren baitan, modu haragitu, sozial eta miatzailean jokatzen du ibiltzearen praktikak. Hiriko emakumeen narratiba espazializatzeak ahalbidetzen du lekua ulertzeko dugun moduaz berriz hausnartzea. Generoaren elkarrekintzen zein performatibitatearen eta bere boterearen geografien gaineko beharrezko ikuspegia dakar espazioaren ikuskera dinamikoa izateak. Oinez egiten diren ibilbideetan parte hartzeak eragin politikoa izan dezake; era berean, eraikitze eta eraldatzeko gaitasuna ere badu. Baieztapen horien ondorioak abian dira.

24 Donostiako Udal Artxiboko espedientea. 20. zenbakia, 1993. liburua.

25 Idem.

26 Uraren eta Morlansko akueduktoaren *leitmotiv*-ari eutsi beharko balitzaio, jatorrizko ibilbidearen geldialdi guztiak bere horretan utzi daitezke. Desagertu zen akueduktoaren ibilbidearekin bat, ondorengoak dira gaiak: hiri metropolitarrak eta globala (leku horretan eraikitzen ari diren metro-linearekin lotura) gerran dagoen hiriko emakumeak (Donostia suntsitu zuten gerren ostean akueduktuan egin zituzten ondoz ondoko konponketei lotuta). Azken geldialdia, Osasun iturrian egin genuena, hiriko jaietako emakumei (urketari, sukaldari eta danbor-joleak) eta Jane Jacobs-en pasean zehar margotutako grafitiari buruzkoa izan zen.

BIBLIOGRAFIA

- Albet, Abel eta Nuria Benach (2012): *Doreen Massey. Un sentido del lugar*, Icaria, Barcelona.
- Arias, Diana (2017): “Etnografía en movimiento para explorar trayectorias de niños y jóvenes en Barcelona”, *Revista de Antropología Social* 26 (1): 93-112. <https://doi.org/10.5209/RASO.56044>.
- Azpiazu Elorza, José Antonio (2016): “Las mujeres vascas y el mar”. *Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco* 8: 811-829.
- Berriochoa Azcárate, Pedro (2016): *Aiete. Caseríos, casas y familias*. Donostia: Lantxabe.
- Fischer-Lichte, Erika (2011): *Estética de lo performativo*, Adaba, Madrid.
- Gallego Muñoz, Beatriz (2011): “Una aproximación a la sociabilidad femenina y a la creación de la conciencia de género: los lavaderos en el mundo rural alavés”, *Euskonews*, 13 de mayo de 2011.
- García de Vicuña Olaizola, Iñaki. 2014. “El transporte fluvial en el Urumea. Actividad y gestión de sus puertos. Siglos XVI al XIX”, *Publicaciones digitales Untzi Museoa* 3.
- Heddon, Deirdre eta Cathy Turner. 2010. “Walking Women: Interviews with artists on the move”, *Performance Research* 15 (4), 14-22. <https://doi.org/10.1080/13528165.2010.539873>.
- Heddon, Deirdre eta Cathy Turner (2012): “Walking Women: Shifting the Tales and Scales of Mobility”, *Contemporary Theatre Review* 22 (2). <https://www.tandfonline.com/doi/abs/10.1080/10486801.2012.666741>.
- Lefebvre, Henri (1978): *El derecho a la ciudad*, Península, Barcelona.
- Macías, Olga (2016): “Las mujeres y las actividades marítimas en el País Vasco: trabajo portuario y ámbito persquero (1700-1950)”, *Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco* 8, 831-845.
- Manríque Sáez, M^a Pilar, y M^a José Alberdi Erice (2000): “Lavaderos: espacio público, genérico, de trabajo, de relaciones interpersonales. Cambios acaecidos. Guipúzcoa 1850-1950”, *Vasconia* 30, 301-321.
- Massey, Doreen (1994): *Space, place and gender*, Polity Press, Oxford.
- Muñoz Echabeguren, Fermín (2003): *El agua potable en la historia de San Sebastián/ Edateko ura Donostiako historian*, Aguas de Añarbe, Donostia.
- Myers, Misha (2010): “Walk with me, talk with me’: the art of conversive wayfinding”, *Visual Studies* 25 (1), 59-68. <https://doi.org/10.1080/14725861003606894>.
- . 2011. “Walking Again Lively: Towards an Ambulant and Conversive Methodology of Performance and Research”, *Mobilities* 6 (2), 183-201. <https://doi.org/10.1080/17450101.2011.552775>.

- O'Neill, Maggie eta Phil Hubbard (2010): "Walking, sensing, belonging: ethno-mimesis as performative praxis", *Visual Studies* 25 (1), 46-58. <https://doi.org/10.1080/14725861003606878>.
- Pink, Sarah (2007): "Walking with video", *Visual Studies* 22 (3), 240-252. <https://doi.org/10.1080/14725860701657142>.
- (2008) "An urban tour: The sensory sociality of ethnographic place-making", *Ethnography* 9 (2), 175-96. <https://doi.org/10.1177/1466138108089467>.
- Pink, Sarah, Phil Hubbard, Maggie O'Neill eta Alan Radley (2010): "Walking across disciplines: from ethnography to arts practice", *Visual Studies* 25 (1), 1-7. <https://doi.org/10.1080/14725861003606670>.
- Romás-Velázquez, Patria eta Alejandra García Vargas (2008): "Hay que traer el espacio a la vida: entrevista con Doreen Massey", *Signo y pensamiento* 27 (53), 328-342.
- Sheller, Mimi (2011): "Mobility", *Sociopedia.isa*, 1-12.
- (2014) "The New Mobilities Paradigm for a Live Sociology", *Current Sociology* 62 (6), 789-811. <https://doi.org/10.1177/0011392114533211>.
- Sheller, Mimi eta John Urry (2006): "The New Mobilities Paradigm", *Environment and Planning A: Economy and Space* 38 (2), 207-226. <https://doi.org/10.1068/a37268>.
- Solnit, Rebecca. 2015. *Wanderlust: Una historia del caminar*. Madrid: Capitan Swing.
- Unsain, Jose María. 2008. *San Sebastián, ciudad marítima*. Donostia: Museo naval.
- . 2016. *San Sebastián. Un viaje a través de la historia*. Donostia: Nerea.
- Valle, Teresa del (1985): *Mujer vasca: imagen y realidad*, Anthropos: Barcelona.
- Vergunst, Jo (2017): "Key figure of mobility: the pedestrian", *Social Anthropology* 25 (1), 13-27. <https://doi.org/10.1111/1469-8676.12289>.